

AEB-ETAKO EKONOMIA. Atzeraldia egiaztatu dute berriro datuek

Estatu Batuetako ekonomia uste baino gehiago erori da aurreko hiruhilekoan: %1,1

Washingtonek behera zuzendu du hasierako %0,4ko tasa negatiboa

Agentziak | WASHINGTON


Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) ekonomiak %1,1 egin zuen behera aurtengo hirugarren hiruhilekoan iazkoaren aldean, Washingtongo Merkataritza sailak atzo emandako datuen arabera. Duela aste batzuk zabaldutako aurreikuspenak motz gelditu dira, beraz, %0,4ko tasan finkatu baitzuten AEBetako ekonomiaren behe-rakada.

Hirugarren hiruhilabeteko zuzendutako %1,1eko tasa negatiboa bat dator adituek espero zutenarekin. Urteko bigarren hiruhilekoan ekonomia %0,3 hazi ostean, uztaila eta iraila birtarteko atzerapena 1991. urte-tik hona izandako lehenengoa da. Nolanahi ere, Washingtonek datorren hilabetean jakinaraziko du azken hiruhileko horretarako hirugarren eta behin betiko datua.

AEBetako ekonomia 1991tik etengabe hazi eta gero, 2000ko ekainean moteltze zantzuak ematen hasi zen, eta aurtengo martxoan atzeraldian sartu zen. Iraileko atentatuen ondorioak nabarmenak izan ziren kontsumoan eta sektore ekonomiko garrantzitsuetan: aeronautika eta ostalaritza alorretan. Hala ere, Washingtonek ez du zenbaitan zehaztu erasoaren eragina.

Atzerapen tasa behera zuzentzeko arrazoiak bi izan dira: enpresen inbentarioen murrizketa sakona eta uste baino defizit komertzial handiagoa.

AEBetako kontsumitzaileen gastuak Barne Produktu Gordinaren (BPG) bi heren sortzen ditu. Gastu horrek azken zortzi



EUROGUNeko PREZIOAK

Inflazioa %2,1era jaitsi zen azaroan euroaren eremuan

Euroaren eremuko inflazio tasa %2,1era jaitsi zen iragan azaroan, 0,3 puntu behera aurreko hilabetekoaren aldean. Inflazio tasaren beherakada hori seigarrena izan da jarraian, eta prezioak kontrolpean jartzen ari direla egiaztatzen du, Eurostat estatistika erakundeak atzo jakinarazitako datuen arabera. Izan ere, aurtengo maiatzean %3,4ko gorenko mailan izan eta gero, euroguneko hamabi lurraldeetako prezioek 1,3 puntu behera egin dute. Azaroko azken jaitsiera adituek espero zutena baino nabariagoa izan da, eta inflazio tasa azken urte eta erdiko apalena da gaur egun, hain zuzen ere Europako Banku Zentralaren (EBZ) %2ko helburutik hamarren batera.

urteetako indize motelena erakutsi du aurreko hiruhilekoan.

Enpresen irabaziaz %7,1 jaitsi ziren aztertutako hiruhilekoan, zergak ordaindu eta gero. Mozkin jaitsiera %1,7koa izan zen urteko bigarren hiruhilekoan eta %7,8koa lehenengoa.

Bestalde, AEBetako ekonomiar buruzko datu kaskar horiek gorantz bultzatu zuten atzo euroaren kotizazioa. Europako diru bakarraren balioa 0,8869 dolarretik 0,8967 dollarrera igo zen oso ordu gutxitan finantza merkatuetan.

LABURREAN

Opel konpainiak aurtengo ekitaldian galera handiak izatea aurreikusten da

Alemaniko autogintza alorreko Opel konpainiak 503 milioi eurotik gora galduta amaituko du aurtengo ekitaldia (83.690 milioi pezeta edo 3.345 milioi libera), *Financial Times* egunkariak atzo jakinarazi zuenez. Iazko galerak aurtengo gutxitzeko helburua zuen Opelek, baina iraileko atentatuek eragin kaltegarria izan dute sektorean. Gauzak horrela, Alemaniko konpainiak 2003a arte ez du mozkin izango.

ICT Nord enpresako Juan Robles langilea oso larri dago lau metroko altueratik erori eta gero

Durangoan dagoen ICT Nord enpresako Juan Robles Nievas, 46 urteko langilea, oso larri dago atzo goizean lau metroko altueratik erori ondoren. Langilea Galdakaoko ospitalean aurkitzen da eta oso zauri larriak ditu. Istripuaren ostean, CCOO sindikatuak salatu zuen enpresa horri ez zaiola lan arriskuen ikuskaritza egin eta behar-ginei ere ez zaiela lan osasunari buruzko informaziorik eman.

Pentsioen inguruko helburu bateratuak finkatuko dituzte Hamabostek

Europako Batasuneko hamabost lurraldeetako Enplegu eta Gizarte Kontuetako ministroak pentsioen inguruko helburu bateratuak finkatzen ahaleginduko dira datorren astelehenean. Bruselatik adierazi dutenez, Estatuak pentsio alorrrean «koordinazioa» bideratu nahi dute, geroa bakoitzak lurralde mailako estrategiak finkatu eta ebaluatzeko, gaur egun enpleguarekin egiten duten bezala.

BATZARRA

Vital Kutzak 8.700 milioi pezetako irabaziaz espero dituzte urtea amaitzean

I. S. | GASTEIZ

Zergak ordaindu aitzin 8.700 milioi pezeta irabazteaz espero du Vital Kutzak aurtengo. Urriaren 7.121 milioi pezetako mozkinak zituen. Etekin garbia kontuan izanik, 5.662 milioi, joan zen urtearekin alderatuz, %14,71 gehiago. Datuak jakinarazi zituen atzo erakundeak, Gasteizen egindako batzar orokorrean.

Pascual Jover Vital Kutzako presidentea eta Joseba Barrena zuzendari orokorrak kudeaketaren berri emateko ardura izan zuten. Egun kutzak 689.859 milioi pezeta administratzen dituela nabarmendu zuten, urte batetik bestera %10,10eko igoera.

Kredituetan dauka Vital Kutzak indarririk handiena. Buruzagiek zehaztu zuten, Arabako lehen postua du atal horretan. Kreditu bidezko inbertsioari dagokio balantze finantzari guztiaren %59,18. Batez ere, etxebizitza da kreditu horren onuradun nagusia. Guztira, %48,35 doa etxebizitzara, %13,49 industriara eta eraikuntzara %12,75.

Inbertsio funts ezberdinek ere gora egin dute azken hamar hilabeteotan, %11,13. Vital Kutzako kudeatzaileen arabera, ez zen halakorik aurreikusten merkatuaren joeran.

Pascual Jover presidentea esan zuenez, 2000-2004 egitasmo estrategikoan jaso ziren eginkizunak betetzen ari da erakundeak. Jover kutzaren sektoreak izango dituen bost erroka nagusiei buruz mintzatu zen batzarrak amaitu aurretik: oinarriko negozioei etekina ateratzea; inbertsioen eraginkortasuna hobetzea; hazkunde politika egonkorra bermatzea; balantzearen kaudimena indartzea eta arriskuen kudeaketa optimizatzea; eta, azkenik, gizarte lana beharizan berrietara egokitzea.

BURTSA. Albiste txarrez betetako eguna izan zen atzokoa

San Andres, kontzertuan babes

J. B. Andueza |

Beatle baten heriotza, Kontzertua luzatu duen Montoro bakar-laria, Argentinako sinfonia ezatsegina (FMik maileguak murriztu dizkio) eta historiako ordainketa eten handiena eragitera doan Enron enpresaren Requiem, ez dira San Andresetan berri onegiak. Hala ere, harmo-


niadun notak ere baziren atzoko kontzertuan, amaiera aldean bereziki: Euroguneko inflazioa %2,1era jaitsi da, EBZk sortu zenean aipatutako %2ko helburutik hurbil beraz. Eta, batez ere, Dow Jonesen igoerak, AEBetako hirugarren hiruhileko BPGa uste baino gehiago jaitsi arren. Guztira, 1.500 milioi euroko negoziazioaz lagundurik.

DATUA

BBVA (+%2,38) eta **BSCH (+%1,82)** Argentinaren hartzekodun garrantzitsuenetakoak dira, hiruna mila milioi dolar inguru. FMik laguntza eman edo ez, estatu hori porrot eginda dagoela esan daiteke, zor trukea, devaluaketa edota beste edozein neurri hartzen dela ere.

Bilboko 2000 indizea

Diferentzia **+%0,99** | Azken indizea **1.466,54** | Aurreko indizea **1.452,10**



Beste indizeak

New York (Dow Jones)*	9.857,51 (+%0,29)
Tokio (Nikkei)	10.697,44 (+%0,44)
Madril (IBEX-35)	8.364,70 (+%1,11)
Paris (CAC-40)	4.476,06 (+%0,68)
Londres (FTSE 100)	5.203,60 (-%0,09)
Frankfurt (DAX)	4.990,40 (+%1,10)
Milan (Mibtel)	22.497 (+%0,24)

* Egundira arte

Dibisen merkatua

	Euro bat
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,8898
Libra Esterlina	0,6238
100 Yen (Japonia)	1,1006